

ERAKUNDEKO LANGILEEN ALTAK KUDEATZEKO ESKULIBURUA

Langilearen kudeatzailea da Lanbideko orientazio-aplikaziora sartzeko modua daukana, baina bakar-bakarrik orientatzaile/koordinatzaileen altak eta bajak eskatzeko, deialdia martxan dela. Lanbideko orientazio-aplikaziora lehenengoz sartzean, abisu bat agertuko zaio, legeko baldintzen jakinaren gainean dagoela adierazteko agiria sinatzeko (“Langileak jakinaren gainean daudelako adierazpena”).

Condiciones Legales

Antes de acceder a la aplicación, debe firmar el siguiente documento.

Firmar Conocimiento Informado

Horretarako, erabili ezkerraldean ageri den ikonoa (idazluma).



LANGILEAK JAKINAREN GAINEAN DAUDELAKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak,
NAN _____

ADIERAZTEN DU:

Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak informatikako euskarri-
zerbitzua eskaintzen dizu.

Titularrak eskueran jarri dizun informazioaren erabilera
okerrak sor dezakeen erantzukizuna, Lanbide, Euskal
Enplegu Zerbitzu Publikoak lagatako tresnen bidez izanda
ere, zurea eta zerbitzuak eskaintzen dizkiozun
Erakundearena bakarrik izango da.

DECLARACIÓN DE CONOCIMIENTO INFORMADO

D/Dña _____
con DNI _____

DECLARA

Lanbide-Servicio Vasco de Empleo le presta un servicio de
soporte informático.

La responsabilidad del mal uso de la información, a la que
el titular de la misma le ha concedido acceso, aun
utilizando las herramientas proporcionadas por Lanbide-
Servicio Público Vasco de Empleo, será exclusivamente
suya y de la Entidad a la que presta sus servicios.

Norbaiti alta emateko eskaera

Norbaiti alta emateko eskatzeko (berdin dio zer aukera markatuko dugun: Koordinatzailea edo Orientatzailea), lehendabizi Menura joan behar da eta hor, bide honi segi: “Administrazioa → Erabiltzaileen kudeaketa → Pertsonen kudeaketa”.

Goiko aldean daude eskaerak egoeraren arabera kontsultatzeko iragazkiak.

Pertsonen kudeaketa

kudeatzaile-zerrenda

Filtros de búsqueda

Deialdia: 251003 - Convocatoria Centros de Empleo 2025-2026 Egoera: Todos
Kokapena: Todas

Bilatzeko iragazkiak

Hor behean agertuko zaigu bila gabiltzana, eta bakoitzaren egoera zein den.

Entitatea	Kokapena	Orientatzailea	Egoera	Ekintzak
20140 - 104	SARTU ALAVA CE LLANADA ALAVESA-ALEGRIA-DULANTZI, CL Mayor	ASIER FERNANDEZ CALLEJO	Fin Actividad	
20140 - 104	SARTU ALAVA CE LLANADA ALAVESA-ALEGRIA-DULANTZI, CL Mayor	ASIER FERNANDEZ HERRAN	Solicitud	
20140 - 104	SARTU ALAVA CE LLANADA ALAVESA-ALEGRIA-DULANTZI, CL Mayor	ASIER FERREIRO CUESTA	Solicitud	
20140 - 104	SARTU ALAVA CE LLANADA ALAVESA-ALEGRIA-DULANTZI, CL Mayor	ASIER FERNANDEZ CRUZ	Fin Actividad	

Honako legenda honetan ikus daiteke ikono bakoitzak zer egoera adierazten duen:

Legenda

- Kontsultatu
- Editatu
- Ezabatu
- Baja eskatu
- Eskera kontsultatu
- Adskripzioaren ziurtagiria
- EGF dokumentua kontsultatu
- Legezko Oharra Kontsultatzea

Norbaiten alta eskatzeko, BERRIA botoia klikatu behar da. Leiho bat agertuko da orduan, eta bertako hutsuneak bete beharko dira.

Editatu

Datu pertsonalak

Pertsona00607014 - ASIER FERNANDEZ CALLEJO

Kokapena20140 104 - SARTU ALAVA CE LLANADA ALAVESA

Profila
☐ Koordinatzaile eta Orientatzaile
☒ Solik Orientatzaile

Lan merkatua, internet eta ofimatika ezagutzak☒

Orientatzailearen posta elektronikoaafuertes@bilbomatica.es

Gutxieneko esperientzia kurrikularra lan-orientazioan

Entitatea	bbk	Data noiztik	03/07/2023	Data noiz arte	03/07/2025
Entitatea		Data noiztik		Data noiz arte	
Entitatea		Data noiztik		Data noiz arte	
Entitatea		Data noiztik		Data noiz arte	
Entitatea		Data noiztik		Data noiz arte	
Entitatea		Data noiztik		Data noiz arte	

Dokumentazioa

NDO

Kontratua/izendapenaoperatibista

Titulazioa

- Hiru puntutxo dituen botoi urdina sakatu, eta alta nori eman adieraziko dugu.
- Kokapena: bat baino gehiago aukera litezke.
- **ADI:** orientatzailearen e-maila ez badago behar bezala idatzita, ez zaizkio iritsiko gakoak.
- Gutxieneko esperientziak batuta, urtebeteko esperientzia osatu behar da, gutxi jota.
- “Dokumentazioa” atala: markatutako agiri digitalizatuak sartu behar dira hor.
- Hutsuneak behar bezala beste ondoren, “Sinatu eta sortu” klikatu beharko dugu.

Hurrengo agiria agertuko da, sinatzeko.

Berriz ere idazlumaren ikonoa erabiliko dugu sinatzeko.



(2025-2026 ENPLEGU-ZENTROAK) - (CENTROS DE EMPLEO – 2025-2026)
LANGILEEN ALTA HARTZEKO ESKAERA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
SOLICITUD DE ALTA DE PERSONAL Y DECLARACIÓN RESPONSABLE

ENTITATE LAGUNTZAILAREN IZENA NOMBRE ENTIDAD/AGRUPACIÓN BENEFICIARIA	
--	--

PARTE HARTZEN DUEN ENTITATE-TALDEAREN IZENA NOMBRE DE LA ENTIDAD PARTICIPANTE DE AGRUPACIÓN	
---	--

SARTU BEHARREKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA A INCORPORAR		
IFZ/AIZ /NIF/NIE	IZENA/ NOMBRE	ABIZENAK /APELLIDOS
POSTA ELEKTRONIKOA: CORREO ELECTRÓNICO:		

BETE BEHARREKO KARGUAK: ☐ - Orientazio Koordinatzailea / **Coordinador/a Orientación (Código cargo CO)**
CARGOS A DESEMPEÑAR: ☐ - Orientatzailea / **Orientador/a (Código cargo OR)**

ZENTROA ETA KOKAPEN KODEA CÓDIGO CENTRO Y UBICACIÓN	UDALERRIA MUNICIPIO	HELBIDEA DIRECCIÓN	P.KODEA C.P.

Sinatzen amaitzen dugunean, mezu elektronikoa bidaliko zaio kudeatzaileari, jakin dezan eskaera behar bezala erregistratu zaiola.



Se ha registrado correctamente su solicitud de personal con la siguiente información:

Ubicación(es):
PEÑASCAL S.COOP. - CE BILBAO CARRETERA BILBAO-GALDAKAO-BILBAO, CL Errepide Bilbao-Galdakao
Persona: [REDACTED]
e-mail de la persona: [REDACTED]
Perfil solicitado: CEM

En breve se gestionará la presente solicitud.
Si alguna de la documentación aportada no fuese la correcta, recibirá otro email informándole de la causa. En este caso deberá acceder a la aplicación de orientación, filtrar por el estado Subsanación y adjuntar la documentación correcta.

Orduan, erregistratutako eskaera honelaxe agertuko da: “Eskaera”.

Erregistratutako eskaera hori aintzat hartuko du Lanbidek, eta ikusiko balu aurkeztutako dokumenturen bat ez dela egokia, deialdiko eskakizunen aldetik, gestoreak beste mezu elektronikoko bat jasoko luke horretaz ohartzeko (azalduz zer dela-eta ez den egokia).

Halakoetan, eskaera honela agertuko da: “Zuzentzeko”.



El alta de la persona con DNI [REDACTED] y perfil ECC en la entidad AGRUPACIÓN BATEGIN BIZKAIA COL. DESVENTAJA 4 requiere de subsanación por los siguientes motivos:
Contrato: INCORRECTO - Erakunde laguntzaileak adierazten du jakinaren gainean dagoela eta onartzen duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein unetan eta alde bakarretik baliogabetu ahal izango duela
DOI: INCORRECTO - Erakunde laguntzaileak adierazten du jakinaren gainean dagoela eta onartzen duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein unetan eta alde bakarretik baliogabetu ahal izango duela
Titulacion: INCORRECTO - Erakunde laguntzaileak adierazten du jakinaren gainean dagoela eta onartzen duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein unetan eta alde bakarretik baliogabetu ahal izango duela
Acuda a la aplicación de orientación, filtre los estados por “Subsanando” y aporte la documentación correcta.

Kasu horretan, jo orientazioko aplikaziora, bilatu “Zuzentzeko” dauden eskaerak, egoeren iragazkia erabilita, eta igo dokumentazio egokia. Hori egin eta gero, egoera “Eskaera” agertuko da, berriro.

Lanbidek eskatutako pertsonaren alta ontzat eman eta izapidetu ostean, alta eman zaion horrek e-mail bat jasoko du, aplikazioan sartzeko beharrezko gakoak ikusteko. Aplikazioan ondo moldatzeko jarraibideak ere jasoko ditu.

Orduan bai, egoera “Amaituta” agertuko da.

Egun on:	Buenos días:
Eskaria egin duten pertsonen gaituta ditzute gakoak.	Ya están habilitadas las claves para las personas que lo han solicitado.
Hona hemen orientazio aplikazioaren sartzeko beharrezko pausoak:	
A continuación se indican los pasos necesarios para entrar en la aplicación de orientación:	
Aplikazioaren URLa / URL de la Aplicación: https://lanbide.lanbide.net/orientacion/loginOrientacion.seam Zentroa / Centro: AGILUPACIÓN BATEGIN BIZKAIA COL. DESVENTAJA 4 Zentroaren kodea / Código de Centro: 00389 Kokapena / Ubicación: BILBAO: 201	
Gako pertsonalak:	Claves personales:
a. Bitartekartzako eta /edo orientazio aplikazioa erabiliko duten pertsonen gakoak badituzte, horiek erabili beharko dituzte b. Lehen aldiz gakoak jasoko dituzten pertsonen kasuan, pasahitza da. Lehen aldiz sartzen direnean, gakoak eskatuko zaie. Hortik aurrera, aplikazioa erabili ahaliko dute. c. Sartzen direnean, pasahitza aldatzeko eskatuko zaie (5 eta 8 karaktere artean eduki behar ditu, horien artean, letra bat eta zenbaki bat gubioz).	a. Si las personas que van a utilizar la aplicación de intermediación y/o de orientación ya poseen claves, deben utilizar dichas claves b. Para aquellas personas a quienes se faciliten las claves por primera vez, la contraseña es Al acceder por primera vez, se les solicitará que cambien la clave y a partir de entonces ya podrán utilizar el Aplicativo. c. Al entrar nos pedirá que cambiemos la contraseña (la contraseña debe tener entre 5 y 8 caracteres y contener, al menos, un número y una letra).
Edozer zalantza edo galdera izanez gero, bidali helbide elektronikoa honetara: orientazioa@lanbide.eus Adeitasunez,	Cualquier duda o consulta, deberá canalizarse a través de la dirección de correo electrónico orientazioa@lanbide.eus Atentamente,

AZKENEKO OHARRA: Kudeatzailea izan daiteke erakunde bateko orientatzailea ere, ez dago inongo oztoporik. Hori bai, kasu horretan, logikoa litzateke kudeatzaileak lehen-lehenik, beste ezer baino lehen, orientatzaile izateko alta egitea.

Norbaiti baja emateko eskaera

Alta eskatu zitzaion langileak erakundean lana egiteari uzi badio, kudeatzaileak haren baja eskatu beharko dio Lanbideri.

Horretarako, ikono hau klikatu beharko da:  Solicitar Baja (Eskatu baja). Leiho berria irekiko da eskaera berresteko.

Egoera aldatu egingo zaio orduan eta hau agertuko da: “Aktibitatea amaituta”.

Kudeatzaileak e-maila jasoko du, langileari baja eman zaiola jakinarazteko.